48 14

LARREDIAK

Larrediak, jatorriz, abeltzaintza tradizioko zonaldeetako herri-basoetan mugatutako lurraldeak dira. Oro har, itxura zirkularra dute. Kantauriko isurialde osoan zehar eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan aurkitzen dira, batez ere Bizkaian (bertan korta deitzen zaie) eta Gipuzkoan (bertan sarobe edo saroi deitzen zaie) eta gutxiago, berriz, Arabako iparraldean.

Badirudi Erdi Aroan sortu zirela, nahiz eta ondorengo garaietakoak aurkitu izan. Haien zeregina ganaduari bazka lanak erraztea zen, herri-basoetan. Hori zela eta, badirudi sel bat sortzeko baldintzetako bat ura nahiko gertu izatea zela, animalien egarria asetzeko, eta baita, gehiegizko maldarik gabeko lekuetan kokatuta egotea ere, haizeetatik babestuta eta leku ilunetik urrun.


Normalean larrediak taldekatuta agertzen dira horiek osatzeko aukera ematen duten zonaldetan, horregatik, larrediak, sarritan, sekante mugekin aurkituko ditugu (larredi artekoak), beraz, horiek ez zuten nahita nahiez zirkulu bat osatzen, baizik eta elkarren ondoan zeuden bi larredi handiago edo txikiagoa zen sektore zirkularrik gabe ager zitezkeen (muturreko kasuetan, erdi larrediak izatera iritsi zitezkeen), eta zonalde hura sarritan liskarrak sortzen zituen zonaldea zen. Larredi gehienak laurehun eta zazpiehun metro altuera artean aurkitzen dira.

Larredien ezaugarri garrantzitsu bat mugarritzeari dagokio. Mugarriak zirkuluaren erdian kokatutako harri bat dauka (hauts harria edo austerritza izenekoa) eta (oro har), lau, zortzi edo baita hamasei mugarri periferiko ere (baztemugarriak), erdialdekotik distantzia berara kokatuta, larredia mugatzen duen zirkunferentziaren trazadurarekin bat eginez.

Larredien tamainak askotarikoak ziren, hala ere larredi “handiagoak” eta “txikiagoak” sailkatu daitezke, larredi motaren arabera. Negukoak handiagoak ziren, ganaduak bertan zortzi hilabete ematen zituztelako eta udakoetan, berriz, lau hilabete bakarrik.

Gaur egun, 250 larredi inguru identifikatu daitezke Bizkaian. Bertan, negukoak zein udakoak antzeko kopuruaren arabera sailka daitezke. Lehenengoen batezbesteko azalera 16,4 Ha dira eta bigarrengoena, berriz, 4,6 Ha.

XV. mendetik aurrera, badirudi larrediak nekazaritza kokaleku bilakatuz joan zirela, eta artzaintza edo artzaintza/basogintzan bakarrik erabiltzetik nekazaritza-abentzaintza-basogintzan erabiltzera pasa zela. Horri dagokionez, zenbait kasutan, etxe bat eraiki zen larrediaren beraren lurraldean. Horrez gain, askotan, ikazkintza ere landuko da.



Ortoargazkia 2015. Iturria: E Jaurlaritza. geoEuskadi. 123 m radioa duen “Kortanagusi” larredia (4,7 Ha), Dimako udal mugartean. Ortoargazkian argi ikus daiteke, zuhaitzak dituzten partzelez inguratuta dagoelako. Hego mendebaldeko sektoretik, errekatxo batekin mugatzen du. Errekatxo horrek, aspaldiko garaietan, ganaduari ura hornitzen zion.




Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Udiarraga larredia (Ugao-Miraballes): haren barnean Udiarragako baserria eta Santutegiko induskeka ikus daiteke, 1775ean eraitsita.

Gaur egun identifikatutako larredietako lurzoruak bereziki basorako erabiltzen dira, batez ere intsinis pinukoa (%72), espezie hostogalkorrek, berriz, osagarrizko %8,3 suposatuko lukete, besterik ez. Abeltzaintzako erabilera %20koa izango litzateke, eta ehuneko hauek ez dira Bizkaiko lurraldeko lurzoruaren gainontzeko erabileretatik bereizten.

Gehiago jakiteko: El proceso histórico de ordenación de los seles en Bizkaia : estandarización de las superficies y cambios en los usos del suelo / Arantza Gogeascoechea, Joseba Juaristi, Iñaki Moro. - Lurralde n. 33 (2010), p. 37-95.



Ortoargazkia 2015. Euren gaur egungo aprobetxamendua dela eta, argi eta garbi ikus daitezkeen larrediak bakarrik adierazi dira (bereziki baso ustiaketak) Alonsotegi udal mugarteko hegoaldean kokatuta.UTM 30N ETRS89 // : 501751 m // Y: 4784803 m. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi.



Ortoargazkia 2015. Euren gaur egungo aprobetxamendua dela eta, argi eta garbi ikus daitezkeen larrediak bakarrik adierazi dira Zeanuri eta Dima udal mugarteetan kokatuta. Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Larrediak Zeanuri eta Dima Bizkaiko udalerrien inguruan.